

DONOSTIA / 'Txoriak bezala' surfaren inguruko haurrentzako liburua aurkeztu dute

Liburuaren inguruko erakusketa ere zabaldu dute; Andrew Kidman australiarra da egilea

N. Irastorza

Surfaren munduan izen ezaguna da Andrew Kidman australiarrarena. Argazkilaria, zinemagilea eta musikaria ere bada. Surfilm Festibalean, Txoriak bezala liburua eta erakusketa eta Litmus filma aurkeztu ditu.

Olatuei argazkiak ateratzea du gustuko eta horiek ikustean, bertan marrazkiak sartzea proposatu zion Andy Davis ilustratzaileak. Erokeria bat iruditu zitzaidan, baina emaitza ikustean haurrentzako proiektu gisa interesgarria iruditu zitzaidan, esan zuen Kidmanek.

Honela, haurrek surfaren inguruko baloreak erakustea du helburu liburuak. Way of the bird jatorrizko izenburua da eta Surfilm Festibalean euskarazko Txoriak bezala eta gaztelaniazko bertsioak aurkeztu dituzte. Pertsona heldu bati esker surfa deskubritzen duen haur baten istorioa kontatzen du. Hain zuzen ere, surfa familian transmititzen den zerbait dela nabarmendu zuen, bere kasuan bezalaxe.

Liburuarekin batera, izen bereko erakusketa ireki dute Liburutegi Nagusiko ekitaldi aretoan. Bertan, Davisen jatorrizko ilustrazioak eta liburua argitaratu aurreko frogak bildu dituzte. Glass love filmaren fotogramak eta argazkiak ere ikus daitezke.

Bestalde, Litmus filma gaur emango dute Antzoki Zaharrean.